

Goitizena: txakurtxistu
Lehiaketa mota: ipuina
Kategoria: F
Karaktere kopurua: 8.733

OROITU

Goizeko seiak hamar gutxi. Betiko alarma mordoak Sare Konektiboan bizi garen pertsona guztiak esnatu ditu, tira, gutxienez, ni esnatu nau. Eguneko lehenengo uneetan datorkidan lehengo pentsamendu intrusiboa beti bera da: nolako esperimentu modernoa; inor ez da alarmetaz arduratu behar, *alarma-trena* jada existitzen da. Gailu moderno horrek ez nau esnatzen, soilik; berehala konektatzen nau une hau partekatzen duten guztiekin. Kliskada batekin, haien emozioak sentitzen ditut, haien pentsamendu sakabanatuak eta, kasu batzuetan, baita aurreko eguneko oroitzapenak ere. Denok une berean bizirik bageunde bezala, bakartasunik eta distantziarik gabe. Horrela bizitzen erakutsi digu Sare Konektiboaren ekimenak. Baina, batzuetan, neure buruari galdetzen diot ea hurbiltasun horrek, pribatutasun falta horrek, gizaki egiten gaituen zerbaitengatik aldentzen gaituen .

Nire egunaren gidoia ez da asko aldatzen. Hamar minututan nire lanpostuan egon behar naiz, nahi ala ez, nire lan orduak hasi direla jakinarazi eta gero, patrikan daramagun mugikorreko aplikazioaren bidez. Agian beste edozer gauza ez, baina lanorduak oso kontrolatuta daude hemen, *Sare Konektiboan*.

Badakit jende dezente dagoela ez zaiona nire lana gustatzen. Sinplea da: ez dira hemengo lanaren helburuen jakitun. Sare Konektiboa sortu zenetik, munduak ez du gorrotorik jasaten... Momentu bat, ez dizuet *Sare Konektiboa* aurkeztu.

Sare Konektiboan, bat gara. Gure pozak, gure penak partekatzen ditugu, baita gure barne-barneko irrikak ere. Hemen, inor ez dago bakarrik, ezta buruan ere. Badira 25 urte teknologia honek gizateria batu zuela, ulertezintasuna, gorrotoa eta gerra desagerraraziz.

Hara! , berandu noa. Botak jantzi eta kanpora abiatu naiz.

Nire betiko postuan nago, 'Maite Barriola' bezala izendatuta dagoen postuan. Nire unerik gustukoena da hau. Nire lankide saminduak iristear daude. Ezin dugu hitz egin, gehienbat, kontzentrazioa galtzearen arriskuarengatik, eta horrek piska bat sumintzen ditu. Hala ere, ez dira inoiz faltako gure arteko etengabeko keinuak. Nire lana maite dudan arren, ukaezina da pixkat errepikakorra dela eta, horregatik, maila honetako ikuskizunek energia bultzada ematen didate. Hor dator Eki. Gaurkoan Elenek une berean ateratzea erabaki du eta, hortaz, ez dut bi ikuskizunetaz gozatu. Hala ere, haiek zeramaten aurpegiak dezente *energetikoak* izan dira, baita Elenek eskaini didan erdiko behatz zatar hori ere. Mila esker lankide preziatuak.

Gaur, oroitzapen sinple bat konpontzea tokatu zait: piknik bat eguzkipean. Partekatu zuen emakumeak bidalitako oharra horrela dio:

- Ezbeharra gertatu baino lehen eduki genuen azkeneko unea da. Mesedez, nire alabaren aurpegia berreskuratu, ez dut ezer gehiago eskatzen. - emakumea malko artean hitz egiten ari dela ohartu naiz, eta lanari ekin diot.

Irudia lausoa da eta, emakumeak esan duen bezala, neskaren aurpegia identifika ezina da. Berak bidalitako artxibora konektatu naiz eta han aurkitu dut: kizkur iluneko neskato bat barrez, kometa gorri baten atzetik. Haren poza sentitu dut, azalean eguzki izpi bat bezain bero. Koloreak eta testurak berritzen ari naizela, irribarre egin dut.

Baina, orduan, gauza bitxi bat gertatu da.

Nahiz eta eguna beti bezain pozik hasi, iluntasunez beteriko putzu sakon batean aurkitu dut neure burua. Aurreko momentuan sentitzen nuen poza, tristura bilakatu da, eta nire indar guztiek ihes egin dute. Nire gorputza hoztuta geratu da, eta garunak bidali didan agindu bakarra negar egitea izan da. Isilean negar egiteak begirada deseroso mordo batetik salbatu nau. Egoera latz honek argibide bakarra du: norbaitek nirekin oroitzapen triste bat partekatu du. Hala ere, Sare Konektiboak dezente urte daramatza horrela ez duela funtzionatzen. Gauza arraroa da, benetan. Negar egiteari utzi diot behintzat. Ez denbora askoz. Tira, teknikoki, negar egiteari utzi diot, baina beste muturreko emozio batek deabrutu nau: amorru neurgabeak. Eta ez hori bakarrik, inoiz sentitu dudana herxura iritsi da nire gorputzera. Egoera ulergaitza da, nire baitan ekaitza zabaldu balitz bezala da, baina ez dakit nondik datorren, ezta zergatik ere. Behin ekaitza baretuta, nire lana baztertzea erabaki dut. Beste eginkizun bat dut.

Oroitzapen-zinta garraiatzailea desbideratu egin dut, beste lankide batengana jo dezaten. Ordenagailu tolesgarri holografikoa mahaian ipini dut, eta martxan jarri. Bigarren kaxoian (beti bigarrena; ordena da biziaren oinarria) aurkitzen diren errealitate birtualeko betaurrekoak jantzita, Sare Konektiboak dituen korridore infinituetan zehar ibiltzen hasi naiz. Gure enpresak oroitzapen guztiak alfabetikoki gordetzen ditu, baina bada ezabatutakoak edo izendatu gabekoak geratzen diren apal itzel eta desantolatu bat. Agian, ezabatutako oroimen bat arazo informatikoak ematen ari da. Horrela izanda, goi-mailako zuzendariari deituko beharko nioke, enpresa honetan ezin dugulako oroimen edo pentsamendu bat ezabatu, gure eskuz.

Denbora dezente pasa da eta, milaka oroimen aztertu ondoren, artxibo arraro batek nire arreta deitu du. Atal honetan aurkitzen diren oroitzapenen artxiboek zenbakiak dituzte izen gisa, haien ezabatze-data kontuan hartuta. Faktore horri erreparatuz, artxibo baten izena zenbakiz osatuta ez zegoela konturatu naiz. Artxibo honen izena '*Debekatuta E-001*' da. Denok pentsa dezakegun bezala, zerbait debekatua dagoenenan, zerbait hori egiteko gogoia

milaka aldiz biderkatzen da. Hori gertatu zitzaidan niri. Aurreko uneetan galdutako itxaropena berreskuratu nuen, oroitzapena martxan jarri arte.

Irudiak agertu ahala, milaka estimulu jasan zituen nire garunak. Leherketak, tiroak, oihuak, odola... Argi zegoen zer zen: gerra baten memoria. Bai, gerra batekoa. Batailoi horiek non biztanleriak bere alde arbuigarriena atzeratzen duen, non gizakien adimena izkututzen den, gu aurrehistorian biziko bagina bezala jokatzeko. Azkeneko gerrak muga zeharkatu zuen. Ondorio bezala, munduko superpotentzien gobernuek gerren oroitzapen guztiak ezabatzea erabaki zuten. Hortik aurrera, 35 urte daramatzagu gerrarik gabe. Dena den, bakez beteriko urte hauek guztiak disolbatu egin dira, oroitzapena ikusi bezain pronto.

Lurrera bueltatu naiz. Nik jasandako bat-bateko umore aldaketak ulertu ditut. Horiek guztiak oroitzapen ezabatu horren oihartzuna dira, norbaitek ezkutatu zuena eta argira atera nahi duena. Orain bai, badakit zer aurkitu dudana.

Artxiboak ez zituen oroitzapen ahaztuak bakarrik, egia zen. Egia hori ez genuen ezagutu behar. Ikusten dudana bitartean, hitz bat errepikatzen zait buruan: ahanztura. Garai hartako buruzagiek honela erabaki zuten; gerra suntsitzaile baten trauma ezabatzea, geure buruak babesteko. Erru guztia, amorrua, bake ideal baten azpian lurperatua izan zen.

Artxiboa itxi dut eskuak dardarka ditudala. Sarearekin partekatuz gero, dena aldatuko da. Mundu guztiak sentituko du orain sentitzen dudana: suntsitutako hirien garrak, hondakinen azpian ezkutatutako haurren beldurra, salbatu ezin izan genuen oihu isila. Ez da oroitzapen bat bakarrik. Zauri irekia da, inoiz orbainduko ez dena.

Baina suntsituko banu... lurperatuta jarrai dezan utziko banu, zer bihurtuko ginateke ? Benetako gizakiak ginateke ala arretaz eraikitako ilusioa besterik ez? Zer gara gure akatsik gabe?

Jaiki egin naiz, argi pentsatzen saiatzeko. Sarea bizirik dago nire baitan, taupadaka, bigarren bihotz bat bezala. Utopia honetan bizi diren guztien emozioak sentitu ditut: umeen barreak, maitaleen besarkadak, lasaitasuna, itxaropena. Partekatuz gero, oroitzapen debekatu hori itzuliko nieke biztanleei. Baina beste zerbait ere sentitu dut. Ahots bat, ahula baina iraunkorra, nirekin geratu da artxiboa ireki dudanetik. “Gogoratu... gogoratu... gogoratu...”

Berriro konektatu naiz. Fitxategia Sarera bidal dezaket pentsamendu bakar batekin. Baina hori egiteak eraiki dugun utopia haustea esan nahi du. Erruak bularra zanpatzen dit. Nor naiz ni erabakitzeko? Begiak itxi eta nire baitan bilatu dut, iristen ez den erantzunaren zain. Sentitu ditudan emozioetan pentsatu dut: gizateria hautsi baten mina, baina baita amore eman ez zutenen indarra ere. Agian iragana ez da gu babesteko zerbait, baina bai guri irakasteko gauza. Agian... ezkutatzea da benetako krimena.

- Ez dakit hori egokiena den - xuxurlatu dut, nire atzamarrak azken komandoa sakatzeko prestatzen ari diren bitartean. Baina egia izango da behintzat.

Artxiboa bidali dut.

Berehala etorri da. Garrasiz eta malkoz bete da Sarea, ekaitz elektriko bat hasi izan balitz bezala. Dena senti dezaket: milaka pertsonaren mina, amorrua, sinesgaiztasuna. Baina, horren guztiaren artean, zerbait gehiago hazi da. Hasieran ahula zen, baina han dago: ulermena.

Iragana itzuli da, eta harekin gure gizatasuna.